

***** 3. AKTA *****

OHIKO BILKURA

2024KO OTSAILAK 8, ORTZEGUNEAN

Etorriak: ➤ ALKATESA - LEHENDAKARIA: JONE ALASTUEY GARCÍA ➤ ZINEGOTZIAK: M^a LUISA BERNAT MARCO BELÉN MARKO INDURÁIN ANDER MONTILLA ADOT ➤ IDAZKARIA: M^a JESÚS SANZ PUEYO	Uztárróz/Uztarrozeko udaletxeko biltzar aretoan, 2024ko otsailaren 8an, ortzeguna, 12:30etan, alboan aipatzen diren zinegotziak biltzen dira, osoko bilkura arrunta ospatzeko. Uztárróz/Uztarrozeko udalaren bilkura, Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean xedatutakoaren arabera egiten da. Ekitaldia Uztárróz/Uztarrozeko udaleko alkatesa Jone Alastuey García-ren presentziarekin eta M^a Jesús Sanz Pueyo, udaleko idazkariaren laguntzarekin ospatzen da.
---	--

Natividad Estefanía Labairu Marco zinegotzia ez da bilkurara xiten

Korporazioa balioz eratuta dagoenean, honako hauetan jasotako gaiak aztertzen dira:

--- EGUNEKO ORDENA ---

- 1.- 2024KO URTARRILAREN 11KO EZOHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA.
- 2.- 2024. EKITALDEKO ORDENANTZA FISKALAREN BERRIKUSKETA.
- 3.- 2024KO KONTRIBUZIO ETA ZERGEN BERRIKUSKETA..
- 4.- UZTARROZEKO UDALAREN 2024. EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKOR BAKARRA.
- 5.- UZTARROZEKO UDALAREN 2024. EGITARTEKO LANGILE ORGANIKOA.
- 6.- 2024. URTEKO LAN EGUTEGIA.
- 7.- POLIG.1- 187 LURRALDEAN DAGOEN ERAIKUNTZAREN EGUN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA ONARTZEA.
- 8.- 2024KO BASO LANEN ESLEIPENA.
- 9.- DATUAK ESKA-SALAZAR HONDAKINEN MANKOMUNITATEARI EMATEA.
- 10.- ALKATESAREN EBAZPENAK.
- 11.- OHARRAK ETAKOMUNIKAZIOAK.
- 12.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

1./.- 2024KO URTARRILAREN 11KO EZOHICO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA.

Alkatesak 2024ko urtarrilaren 11ko ohiko bilkurari dagokion 2. zk. akta irakurtzeari ekin dio. Gai-zerrendako puntu hau aztertu ondoren, esku-hartzerik ez dagoenez eta, bozketara eraman da, AKTA ONARTZEN da aho batez.

2./.- 2024. EKITALDEKO ORDENANTZA FISKALAREN BERRIKUSKETA

Alkatesak zerga ordenantzak eta horien tasen eranskinak aurkezten ditu, 2024ko hurrengo ekitaldirako haien zenbatekoak berrikusteko.

1).-Azterketa sakona egin ondoren, udal korporazioak aho batez onartzen du 2023. urteari dagozkion egungo tarifa eta prezio publiko berdinak **mantentzea/aldatzea**.

- Agiriak egin eta izapidetzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantza:

- a) Eskariak eta dokumentuak: 1,05 euro (lehen 1,05).
- b) Ziurtapenak: 3,00 euro (lehen 3,00).
- c) Konpultsak: 2,00 euro (2,00) eta 0,55 euro (0,55).
- d) Partzela-zedulak (papereanl): 3,00 € (lehen 1,50 €)

- Ehiza barrutiko gastu berezien zerga arautzen duen ordenantza: Ezabatua.

- Ura hornitzeagatiko tasa arautzen duen ordenantza: kuota finkoa 16,00 eurotan sei hilean behin eta tasa 0,25 eurotan kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko (lehen 0,25 eurotan kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko). Gainerako karga-tasak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, abenduaren 26ko 22/2023 Foru Legearen arabera, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa, 2023ko abenduaren 29ko 269 (NAOn)

- Bide publikoetako eta lur komunetako lurzoruaren, hegalkinaren eta lurpearen aprobetxamendu bereziengatiko tasak arautzen dituen ordenantza: Tasak 2,05 eurotan, 31,25 eurotan eta 923,15 eurotan mantentzea.

- Onddo, ziza eta gainerako produktu naturalen barrutiaren aprobetxamenduagatiko tasa arautzen duen ordenantza: Tasa bera mantentzea, 0,50 euro kilogramo bakoitzeko.

- Udal kirol instalazioak erabiltzeagatiko prezio publikoa arautzen duen ordenantza: 5,00 euro orduko. Halaber, haur eta gazteentzat ordubeteko argiztapena mantentzea.

- Terrazak lurzoru publikoan arautzen dituen ordenantza: 10 €/ m2/urteko, terraza-erabilerarako lurzoru publikoa okupatzeagatik (NAO, 42. zk., 2023ko otsailaren 28koa).

- Fotokopiak: Kopien prezioak A4an mantendu 0,20 euro/kopia, eta hirugarren kopian aurrera 0,10 euro/kopia.

- Koloretako fotokopiak: 0,50 €/ kopia.

2).-Ordenantzei buruzko espedienteak 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera.

3./.-2024KO KONTRIBUZIO ETA ZERGEN BERRIKUSKETA..

Alkatesak azaldu du bilera honetan karga- eta zerga-tasak berrikusiko direla 2024ko ekitaldian onartu eta aplikatzeko.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean ezarritakoa betetzeko "Karga-tasak eta 2024ko zergak" izeneko proposamena aztertu ondoren, bozkatu egiten da.

4/2019 Foru Legeak Ogasunei buruzko Foru Legea aldatu zuen, lurralde-kontribuzioaren gutxieneko tasa % 0,25era igoz, egungo % 0,10aren orde. Xedapen hori indarrean dago finantzaketa-eredu berria arautzen duen Foru Legea onartu ondoren. Gutxieneko 0,25etik beherako lurralde-kontribuzioa indarrean duten erakundeek bost urte izango dituzte hemendik aurrera finkatutako muga barruan kokatzeko, % 0,25 eta % 0,5 artekoak. Epe hori 2027an amaitzen dela ulertzen da.

Gaia aztertu eta bozkatu ondoren, udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

A).2024ko ekitaldirako kontribuzio eta zerga horien karga-tasak ONARTZEA, honela:

- **JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA (JEZ):** % 1,15
- **BEZaren GAINEKO ZERGA:** % 5 (lehen % 5)
- **HIRI-KONTRIBUZIOAREN GAINEKO ZERGA:** % 0,25 (bakarra)
- **LANDA-KONTRIBUZIOAREN GAINEKO ZERGA:** % 0,25 (bakarra)
- **LURREN BALIOAREN GAINEKO ZERGA (GAINBALIOA):** % 20

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ordainarazteko zerga-oinarria zehazteko aplikatu beharreko ehunekoak, honako ehuneko hauek finkatuz: **Koefizienteak:**

2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175.2 artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak honako hauek izango dira:

Koefizientea	Sortze-aldia
0,38	20 urte edo gehiago
0,16	19 urte
0,10	18 urte
0,06	17 urte
0,06	16 urte
0,08	15 urte
0,20	14 urte
0,20	13 urte
0,25	12 urte
0,32	11 urte
0,37	10 urte
0,50	9 urte
0,54	8 urte
0,48	7 urte
0,42	6 urte
0,36	5 urte
0,30	4 urte
0,32	3 urte
0,30	2 urte
0,20	1 urte
0,06	urte bat baino gutxiago»

B).-Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) eta udaletxeko iragarki-oholean **ARGITARATZEA**, alegazioak egin ahal izateko.

4./.- UZTARROZEKO UDALAREN 2024. EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKOR BAKARRA.

Alkatesa-udalburuak 2024rako aurrekontu orokor bakarra eta hura betearazteko oinarriak azaldu ditu, onar daitezten.

2024rako aurrekontu orokor bakarrak diru-sarrera eta gastuetan orekatua den aurrekontu bat biltzen du, Uztarrozeko udalarentzat, 294.255,00 €koa, kapituluka honela banatuta, erantsitako taularen arabera:



AYTO DE UZTARROZ/UZTARROZE GOINEKO AIZA BULGUA - Ejercicio 2024

Doc. PF: IPRESU

PROVISIONAL

Listado del Presupuesto DEFINITIVO por Capítulos

Gastos		Ingresos	
Capítulo	Créd.Iniciales	Capítulo	Créd.Iniciales
1 GASTOS DE PERSONAL.	27.600,00	1 Impuestos directos.	39.200,00
2 GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS.	60.050,00	2 Impuestos indirectos.	7.000,00
4 TRANSFERENCIAS CORRIENTES.	39.280,00	3 Tasas, precios públicos y otros ingresos.	25.200,00
6 INVERSIONES REALES.	152.325,00	4 Transferencias corrientes.	96.355,00
7 TRANSFERENCIAS DE CAPITAL.	15.000,00	5 Ingresos patrimoniales y aprovechamientos comunales	16.800,00
Total Créditos Iniciales de Gastos	294.255,00	7 Transferencias de capital.	109.700,00
		Total Créditos Iniciales de Ingresos	294.255,00

Aurrekontu-partidak zehatz-mehatz aztertu ondoren, udalbatzak honako hau erabaki du aho batez (4 boto):

- HASIERAKO ONESPENA ematea Uztarrozeko udalaren 2024ko ekitaldiko aurrekontu orokor bakarrari eta hura gauzatzeko oinarrirei.
- Onartutako espedientea jendaurrean jarriko da udaletxeko idazkaritzan, 15 egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.
- Jendaurreko erakustaldian alegaziorik aurkeztu ez bada, 2024ko ekitaldirako aurrekontu orokor bakarra berriz argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta behin betiko onartuko da.

5./.- UZTARROZEKO UDALAREN 2024. EGITARTEKO LANGILE ORGANIKOA

Alkatesak 2024rako plantilla organikoa aurkeztu du, onar dadin. Hona hemen horren laburpen-aula:

LANPOSTU ZERREDA:

KODEA	LANPOSTUA REN IZENA	ARAUBIDE JURIDIKOA	MAILA TALDEA	SARBIDE MODUA	PLAZA EGOERA	LANPOS TUA	LANALDIA LUZATZEA	E.T.A.P. XEIEGUN

01	Idazkari-kontuhartzail ea	Funtzionario a(*)	A	Oposizio- lehiaketa	Jabegabeko postua	% 38,96		
02	Zerbitzu anitzak	Lan- kontratu finkoa	E	Oposizi oa	Jabegabeko postua	% 15		

* Izaba-Uztarroze udalen elkarteak partekatutako lanpostua (2019ko abenduaren 18ko akta)

LANGILEEN IZEN-ZERENDA:

01 Kodea	Abizenak eta izena: Sanz, Pueyo, M ^a Jesús Lanpostua: Idazkari-kontuhartzaila Antzinatasuna: 2019ko agorrilaren 19 Administrazio-kontratua
02 Kodea	Abizenak eta izena: Marco, Induráin, Conrado Lanpostua: Zerbitzu anitzak Antzinatasuna: 2019ko Setembararen 23 Administrazio-kontratua

Gaia aztertu ondoren, udalbatzak honako hau erabaki du aho batez:

1. Uztarrozeko Udalaren 2024ko plantilla organikoa hasieran ONESTEA.
2. Onartutako espedientea jendaurrean jarriko da udaletxeko idazkaritzan, 15 egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Jendaurreko erakustaldian alegaziorik aurkezten ez bada, 2023ko ekitaldirako plantilla organikoa berriz argitaratuko da NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN, eta behin betiko onartuko da.

6./.-2024. URTEKO LAN EGUTEGIA

Uztarrozeko udalak 2024. urterako laneko xiegunen egutegi ofiziala izenpetu du, ordaindua eta berreskurazina, Nafarroako Foru Komunitatean. Egutegi kori 2024ko abenduaren 19ko 260. NAO n argitaratu zen, eta abenduaren 1eko 30/2023 Foru Aginduaren bidez onartu zen.

1. Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako administrazioko langileen 2024. urteko xiegunen egutegia, igandeez gain, honako hau izango da:

Urtarrilaren 1	Urteberria
Urtarrilaren 6	Errege eguna
Martxoaren 28	Ortzegun saintua
Martxoaren 29	Ortzilare saintua
Apirilaren 1	Pazko-astelehena
Apirilaren 16	Santa Graxi
Maiatzaren 1	Langileen eguna
Garilalren25	Donejakue
Agorrilaren 15	Ama Birjinaren eguna
Urriaren 12	Espainiako xei nazionala
Azaroaren 1	Santu guztien eguna
Abenduaren 3	Frantzisko Xabier deuna
Abenduaren 6	Konstituzio eguna
Abenduaren 25	Eguberria

Aurreko zerrendan sartuta dago, uztailaren 28ko 2001/1983 Erreg Dekretuaren 46. artikulua arabera, Nafarroako Foru Komunitate osorako tokik jaia, abenduaren 3an, Xabierko San Frantzisko eguna, Nafarroako eguna.

2. Azaroaren 28ko 168/2023 Ebazpenak ezartzen duenaren arabera, udalak proposatuta, Uztarrozeko tokiko xiegun gisa ezartzen da 2024. urterako, ordaindua eta berreskurazina, apirilaren 16ko ***tokiko xieguna: apirilaren 16a: Santa Graxi.***

Aztergaien zerrendako puntu hau aztertu eta bozkatu ondoren, honako hau ERABAKI DA aho batez:

- 2024ko ekitaldiko Uztarrozeko udalaren lan egutegia ONARTZEA.
- Neskanez, igante eta lehenago xieguntzat jotako egun guztiak baliogabe DEKLARATZEA, zenbaketaren ondorioetarako.
- Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Uztarrozeko udaleko iragarki-oholean ARGITARATZEA.

7./.-POLIG.1- 187 LURRALDEAN DAGOEN ERAIKUNTZAREN EGUN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA ONARTZEA.

Alkatesak azaldu duenez, 1. poligonoko 187. partzelan dagoen eraikinaren egoerari buruzko ahozko komunikazioa jaso ondoren, PREMIAZKOA izan zen eraikina ikuskatzea (Uztarrozeko 1. poligonoko 187. partzela) eta udaleko hirigintza-aholkularitzak nahitaezko txostena egitea. Hona hemen horren laburpena:

"Txostena 2024ko urtarrilaren 25ean egindako ikuskapen-bisitaren ondoren idatzi zen, Uztarrozeko alkatesak hala eskatuta. Izan ere, aldameneko lurzatian lanean ari den eraikuntza-enpresak ahoz jakinarazi zuen 187. partzelaren eraikuntzaren hormaren zati bat erori egin zela, eta horrek arriskua sortu zuela langileentzat. Egoera horren berri izan duenean, udalak berehala jarri du hesi bat lurzatiaren bide publikoaren paretik, pertsonen eta ondasunen kalterik ez egiteko.

Egindako ikuskapenaren ondorio gisa, esan daiteke **187. lursaileko eraikinak**, gaur egungo egoeran, eskuineko pinoia berehala erortzeko arriskua duela. Pinoi horrek aurrekaldearen zati bat arrastaka eraman dezake, haren trabesia desagertu baita, bai eta ezkerreko pinoiaren gainerakoa ere, zeina solidarioa baita teilatuko oholtxoen zatiarekin. Erortzeko arriskua barnealdean egon daitezkeen gainerako aurrekalde eta forjatuetara ere hedatu daiteke, edozein arrazoi dela medio, eta horrek arriskua eraikin osora zabalduko luke.

Jarduketa gomendagarriena jabetzak eraikina eraistea litzateke, EHAEOK ikus-onetsitako eraiste-proiektua aurkeztu ondoren, Hirigintza Prozeduraren Ordenantzaren 67. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eraispinak aurrekaldearen 2 metroko garaiera mantendu behar du itxitura-horma gisa, berehala berreraikitzea planteatzen ez bada.

Bestalde, 1. poligonoko 186. lurzatian egin beharreko obretan, 187. lurzatiko eraikinari ez eragiteko behar diren neurri guztiak hartu behar dira. Txosten hau idazteko unean, ez dakigu 186 eta 187 lurzatietako eraikinek egiturazko elementu komun bat duten, eraispinek eta obrek kaltetu dezaketena. Hala badagokio, udalak obrak geldiarazteko agindua eman dezake, eta langileentzako edo aldameneko eraikinarentzako arriskua desagertzeko neurriak har daitezela agindu.

Udalak exekuzio-agindu bat eman dezake erortzeko arriskua duten pinoiak BEREHALA eraisteko, horrek ondasunentzat eta pertsonentzat arriskua dakarrelako, eta hormak lotzeko zingila baten bidez egonkortzeko.

Hala ere, lan partzial horiek ekonomikoki neurrigabeak dira kontserbazio-egoeran dagoen eraikin batentzat, eta arriskuak izan ditzakete langileentzat. Beraz, eraikina eraisteko agindua eman beharko litzateke, hirigintza prozeduraren ordenantzako 66.

artikulua, hormen abioa lurzatiaren itxitura gisa mantenduz. Eraikina eraisteko, EHAEOK oniritzia eman behar dio eraispen-proiektuari, eta segurtasun eta osasun azterlana, aurrekontua eta hondakinak kudeatzeko azterlana jaso behar ditu. Horma-harria lursailean gorde daiteke, behar bezala pilatuta. Eraispenaren aurrekontua, hondakinen kudeaketa eta obrako segurtasun eta osasun partida barne, 35.000 €-koa izango dela kalkulatu da.

186. lurzatiko obrei eta 187. lurzatiko eraikinaren egoerari dagokienez, 187. edo 186. lurzatian edozein jarduketa egiteko agindu-espedientea hasi aurretik, bidezkoa da txosten hau bi lurzatiaren jabetzari bidaltzea, eta 10 egun balioduneko epea ematea ondasunentzako eta pertsonentzako arriskua desagertu eta interes guztiak koordinatzeko egokitzen jotzen dituzten proposamenak aurkez ditzaten.

Aztergaien zerrendako puntu hau aztertu eta bozkatu ondoren, honako hau ERABAKI DA aho batez:

- 187-polig.1 lurzatian dagoen eraikuntzaren egoerari buruz udal hirigintza aholkularitzak 2024ko otsailaren 6an egindako txostena ONARTZEA.
- Prebentziorako neurri gisa hesi perimetral bat jartzea -partzelaren bide publikoaren paretik -, pertsonen eta ondasunen kalterik ez egiteko, eta neurri egokiak hartzea pertsonen segurtasuna bermatzeko eta alboko kalterik gerta ez dadin.
- Alkatesari AHALMENA EMATEA espediente honetan beharrezkoak diren agiri guztiak erabaki eta sinatzeko.

8./.-2024KO BASO LANEN ESLEIPENA.

Alkatesak azaldu duenez, aurreko ekitaldian gauzatutako baso-jarduketan jarraipen gisa, Uztarrozeko mendian baso-lanak egingo dira aurten, mendia landatu eta mantentzeko. Horretarako, inguruko enpresak gonbidatu dira, eta 3 eskaintza aurkeztu dira, honako emaitzarekin:

- 1./.-Ricardo Galan Treviño: proposamen ekonomikoa (2024/01/09): 31.390 €gehi BEZa.
- 2./.- Luis De Miguel Barace: proposamen ekonomikoa (2024/01/10): 31.300 €, BEZa barne.
- 3./.- Abentin Recalde: proposamen ekonomikoa (2024/01/10): 31. 403,16 €, BEZa barne

Idazkariak azaldu duenez, FORESNAk, Eduardo Montero teknikariak, 2023/09/19an egindako aurrekontuaren arabera, Uztarroze-2024ko baso-jarduketan gauzatze materialaren zenbatekoa 31.406,16 eurokoa da (BEZa barne). Inguruabar horrek

bermatzen du, kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak ezartzen duenaren arabera, justifikatua izatea 81.- Araubide berezia zenbateko txikiagoko kontratuetarako, obra-esleipenaren zenbatekoa 40.000 €-tik gorakoa ez delako eta alde zuretik dagokion kreditu-erreserba dagoelako, artikulua horretan ezarritakoaren arabera.

Aztergaien zerrendako puntu hau aztertu eta bozkatu ondoren, honako hau ERABAKI DA aho batez:

- 2024ko baso-lanak eskaintza onuragarrienari esleitzea ONARTZEA. Eskaintza korigatzailea Ángel Luis De Miguel Baracerena izango da, 31.300 €-koa (BEZa barne)
- Alkatesari AHALMENA EMATEA beharrezkoak diren kudeaketak egin ditzan eta behar diren agiri guztiak sinatu ditzan.

9./.- DATUAK ESKA-SALAZAR HONDAKINEN MANKOMUNITATEARI EMATEA.

Alkatesak azaldu duenez, Eska-Salazar hondakinen mankomunitateak egindako batzarrean, ordainagiriaren kobrantza kudeatzeko modu berri bat adostu da, eta horrek esan nahi du zerbitzu mankomunitatea osatzen duten udal guztiek erabiltzaileen datuak uzten dituztela, eta zaborraren ordainagiriaren kobrantzaren kudeaketa eta berankortasunaren jarraipena uzten direla.

Idazkariak azaldu du 2024ko urtarrilaren 17an, R.S.U. Eska-Salazar mankomunitateak egindako ohiko bilkuran, honako hau onartu zela:

"7.3. Mankomunitatearen ordainagiriak mankomunitatetik bertatik kobratzeko kudeaketa berria: udal bakoitzeko erabiltzaileen Excela, hileko ordainketak kitzatzea, udalek ordainagiriak banatzea, etab.

Aspalditik udalek adierazi digute komeni dela mankomunitateak zuzenean bere gain hartzea zaborraren ordainagiriaren kudeaketa. Behin baino gehiagotan jorratu dugu gai hori, eta une honetan hartu dugu lekukoa, eta udal guztien laguntza izanik, aldaketa horri ekitea proposatzen dugu. Lehenik eta behin martxan jarri ahal izateko, MUNIFOR aholkularitza teknikoarekin dugun kontratua egokitu behar dugu. Lantalde tekniko horrek martxan jarriko du Erronkari, Zaraitzu eta Almiradioko erabiltzaile guztiekin zabor eta partzuergo tasak kobratzeko programa. Horretarako, beharrezkoa da udalek erabiltzaileen datuak transferitzea. Mankomunitateak, Datuak Babesteko Legea betetz, bermatzen du datu horiek zerbitzu horrekin lotuta soilik erabiliko direla, eta behar bezala erabiliko direla. Datu guztiak bildu eta kudeaketa-programan sartu ondoren, gure haranetako eta arimako erabiltzaile guztien ordainagiri guztiak kudeatuko dira. Martxan jarri ondoren, kobrantza-sorta bakarra egingo da urteko lehen seihilekoan.

Berankortasunaren jarraipena Geserlocal enpresaren bidez egingo da. Gure ustez, kudeaketa zentralizatuz, pixkanaka-pixkanaka eta zuen lankidetzarekin, ordainagiriak modu eraginkorrean kobratzea lortuko dugu, kudeaketa hobetuz. "

Aztergaien zerrendako puntu hau aztertu eta bozkatu ondoren, honako hau ERABAKI DA aho batez:

- ONARTZEA Uztarrozeko erabiltzaileen datuak Esca Salazar HESko mankomunitateari uztea, Datuak Babesteko Legearen arabera.
- Esca Salazar HESko mankomunitatearekin batera, ondo definitu ez diren zenbait alderdi ARGITZEA, ordainagiriaren banaketari eta kobraezinen kudeaketari buruzkoak.
- ENKARGATU aurrekontu bat "Niebla Informática" enpresari (mantentze informatikoaz arduratzen dena) erabiltzaileen datuen eta fitxategien zerrenda egiteagatik, Esca Salazar HHSa mankomunitateari uzteko, udalaren kontura.

10./.-ALKATESAREN EBAZPENAK.

Alkatesak osoko bilkurari jakinarazi dio 2023ko abenduaren 21etik 2024ko otsailaren 8ra 4 ebazpen eta bando bat egin direla.

ALKATESAREN EBAZPENAK ETA BANDOAK			
26. ebazpena	2023/12/21	Jesús González Artabe	EIOZ behin-behineko likidazioa
27. ebazpena	2023/12/21	Jesús González Artabe	Obra-lizentzia ematea
28. ebazpena	2023/12/21	Idoia Glaría Aznarez	EIOZ behin-behineko likidazioa
29. ebazpena	2023/12/29	Idoia Glaría Aznarez	Obra-lizentzia ematea
BANDOA	2024/01/08	Udala	Elur-garbiketa

Aurreko ebazpenak eta bandoa irakurri ondoren, udalbatzak aho batez erabaki du koriek guztiak BERRESTEA.

11./.-OHARRAK ETA KOMUNIKAZIOAK.

Alkatesak jakinarazi du ohar eta komunikazio kauek jaso direla:

1/- Herriko xeieguna eta xeiegunen berri izatekoa: apirilaren 16an - Santa Graxi herriko xeieguna; eta uztailaren 13, 14, 15 eta 16an, herriko xeiak.

2/-KORRIKA. HARRO HERRIren partetik, 23rako diru-bilketa jaso dugu. KORRIKA Irunen hasiko da, martxoaren 14an, eta 2.500 km inguruko ibilbidea egingen du Euskal

Herri osoan zehar. Aho batez onartu da Korrikaren kilometro erdia erostea (ordaindu beharreko zenbatekoa: 250 €+BEZa = 302,50 €).

3/-Eskutitza – 2023/11/16koa, 18. sarrera-zenbakia – eta aurreko instantzia – 2023/07/24koa, 7. sarrera-sarea –, Pedro José Marco Lorea jaunak aurkeztua, Daniel Alonso Urmeneta jaunarekin sortutako gatazkari buruzkoa. Gatazka hori 2018ko urriaren 23ko obra-lizentziaren bidez egindako obrei buruzkoa da, eta Lakuagako parajea dago (Uztarrozeko 7-Polig.2 lurzatia). Partikularren arteko auzia denez, haien artean konpondu behar da, Kode Zibilari lotuta dagoelako, eta udalak ezin izango du korretan esku hartu.

12./.-GALDE-ESKEAK, NORBERAK LEKARKEENA

Ez dira egiten.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkatesa-udalburuak, 15:45ean, akta kau egin duen bilkura amaitutzat eman du, eta nik, idazkari naizen aldetik, ziurtatu egin dut.

Uztarrozen, 2024ko otsailaren 8an.

O.E.

ALKATESA-UDALBURUA

IDAZKARIA